

BERANGO

gaur



SABINO ARANA KALEA BERRITZEKO LANEN LEHENENGO FASEA ESLEITUTA

OINEZKOENTZAKO ESPAZIO ATSEGINAK, EGOTEKO LEKU ESTALIAK, ZONALDE BERDEAK ETA BIDEGORRI BAT PRESTATUKO DITUZTE

Sabino Arana kalea berritzeo lehenengo fasearen lanak esleitu zaizkio jada 1.464.080 euroren truke – BEZa barne- VASA enpresari (Valeriano Aurrekoetxea S.A). Lanek 8 hilabeteko iraupena izango dute, urtea amaitu baino lehen hasiko dira eta Mimenaga biribiletik, hirigunera doan sarbide hurbilenetik Sabino Arana eta Simon de Otxandategi kaleen arteko bidegurutzera arte egingo dira.

Jarduerak herritarren iritzia ezagutzeko parte hartze prozesua kontuan izan du eta oinezkoentzako espazio atseginak sortuko dituzte, gutxienez bi metroko espaloiak

jarriz. Egoteko leku estaliak, esparru berdeak eta bidegorri bat ere egingo dira. Berangoko Udalbatzak lehenengo fase honetako esleipena onartu zuen EAJ eta PPre aldeko botoekin eta PSE-EE, EH Bildu eta Denok Batera alderdiaren zinegotzia eta adskribatu gabeko zinegotzia den Oscar Garciaeren abstentzioarekin.

Bi faseak koordinatzearen helburua, lanen eragina ahal den neurrian murriztea da. “Herritarrei eragozpenak sortuko dizkie eta hauek arintzen saiatuko gara. Baina guztiz beharreko lana da eta emaitzak mereziko du”. Kasu honetan, Landak gogorarazten du zein izango den eraginda-

ko errepede zatia: Sabino Arana eta Simon Otxandategi kaleen arteko bidegurutzetik Eroskiren ondoan dagoen biribilera doan zatia.

Proiektu honen helburua “gaur egun dauden oztopo arkitektonikoak kenduz sarbideak hobetzea, oinezkoentzako atseginagoa eta erakargarriagoa izateko zonaldea berritzea eta ibilgailu-zirkulazioa moteltzea”. Sabino Arana kaleko parte honen berritzean ia 1,3 milioi euro inbertituko dira oinezkoentzako sarbideak hobetzeko eta aparkaleku- plazak gehitzeko, 35 izatetik 71 izatera pasatuko direlarik.

66 ZBKIA 2017KO AZAROA

BERANGO GAUR HILABETEKARIA
BERANGO GAUR MENSUAL

www.berango.net



Berango
Guztion konpromisoa
Un compromiso común
21

berangokoudala@berango.org





ELMETEK IBILBIDE BERRIA HASIKO DU "METALLO" IZENDAPENAREKIN

ENPRESAK 90 LANGILE DITU BERANGON ETA 25 URTE BETE DITU HERRI HONETAN

Bizkaiko diputatua den Una Rementeriak eta Berango-ko alkatea den Anabel Landak Elmet enpresaren instalazioak bisitatu zituzten bere 25. urteurrena dela eta. Aukera aprobetxatuz, "ibilbide berriaren eta Metallo Spain izendapenaren hasiera" adierazi zuten. "Metallo taldea nazioarteko batasuna da eta honek merkatuetan indar handiagoz lehiatzea eta bazkide belgikarren ondoan etorkizunera ilusio handiz begiratzea ahalbidetuko du".

Enpresak 90 langile ditu Berangon, 173 milioi euro fakturatzeko dituzte urtero, zerbitzuetan eta ekipoetan 5,5 milioi euroko inbertsioak egiten dituzte Euskadin eta 6,8 euro inbertitzen dituzte lehengaiak erosteko. Helburua 2020an 99.000 tona ekoiztea da. Azken urteetan 18 langile gehiago kontratatu dituzte, hauetako 9 kablea birziklatzen duen Botrade

enpresaren erosketaren ondorioz, eta beste 9 galdaketa arloan ekoizpenak izan duen gehikuntzagatik.

Urteurrena ospatzeko antolatutako egintzetan Eusko Jaurlaritzako Ingu-rumeneko sailburuordea den Elena Moreno eta Ekonomia eta Lurralde Garapeneko foru diputatua den Imanol Pradales egon ziren. Hauekin batera, Metallo Group-eko presidentea den Patrick Verschelde eta Metallo Spaineko zuzendaria den Valentín Casado, besteak beste. Elmet izenarekin jaiotako enpresa honek kobreak bere burdinurtutako lehen pieza egin zuen Berangon 1992.eko azaroaren 25ean. Gaur egun lehengaien 90.000 tona ekoizten dira urtero. Lehengai hauek industriarako erabiltzen dira, metalen birziklatzetik eta finketatik eta aurreko prozesu industrialetan erabilitako bigarren mailako beste lehengaietatik etorriak.



Agenda Berango Antzokia

Noviembre 2017ko Azaroa

- Azaroak 4 // 19:00etan "UN MONSTRUO VIENE A VERME" Zinea 12 urtetik gorakoentzat. **Gaztelaniaz. Doan.** Protagonistak 12 urte ditu eta errealitatetik ihes egin nahi du.
- Azaroak 5 // 18:00etan "NAHIA ETA NEO" Txotxongiloak Rosa Martinezekin. **Euskaraz. Doan.** Neo estralurtar dibertigarriak

bisita egingo dio Nahiri.

- Azaroak 11 // 19:00etan LOLA MARKAIDAREN bakarrizketa "ON/OFF. La travesía en un instante" **Gaztelaniaz. Doan.** Abenturak kontatzen ditu baikortasunez, zuzeneko musikarekin.
- Azaroak 12 // 18:00etan "ZIKOINAK"

Animazio Zinea umeentzat. Euskaraz. Doan. Junior zikoinak umeak egiteko makina aktibatuko du nahi gabe.

- Azaroak 18 // 19:00etan "CHANSON FRANCESA" **KONTZERTUA Musika frantsesa. Sarrera: 3 €.** PADDAM bikoteak abesti frantses ezagunenak abestuko ditu.

- Azaroak 19 // 18:00etan "ANGRY BIRDS" **Animazio zinea umeentzat. Gaztelaniaz. Doan.** Txoriak zergatik dauden hain haserre jakin-goguzko azkenean.
- Azaroak 25 // 19:00etan "HOY MILAGRO" **Antzerkia. ATAKADOS Taldea. Gaztelaniaz. Sarrera: 1 €.** Antzerki emanaldi komikoa, une



dibertigarria pasatzeko.

- Azaroak 26 // 18:00etan "ONGI ETORRI, LAGUN" **Antzerkia, ZIRTAKA taldearekin. Euskaraz. Doan.** Ume atzeritarren integrazioari buruzko haur antzerkia.

Para recibir la agenda por e-mail: euskara@berango.org



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Cehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



BERANGOK AUZOKOEN PROPOSAMENAK KONTUAN IZANGO DITU 2018KO AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK SORTZEKO



PROPOSAMENAK 16 URTETIK GORA DUTEN PERTSONEK AURKEZTU AHAL DITUZTE AZAROAREN 8RA ARTE

Berangoko Udalak auzoko beharrak eta lehen-tasunak txertatu nahi ditu 2018rako aurrekontuak sortzeko prozesuan. 16 urtetik gora duten pertsonak parte har dezake- te eskuragarri dagoen formularioa

bete eta emanaz azaroaren 8ra arte udaletxearen aurrez aurreko arretarako udal-bulegoetan.

Proposamenak udal-eskumene-koak izan behar dira eta ondoko arloei lotuta: Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, Berdintasuna, Kultura,

Hezkuntza, Gazteria, Euskara, Drogomenpekotasunaren Prebentzioa, Ingurumena, Osasuna, Herritarren Segurtasuna, Babes Zibila eta Gizarte Ekintza. Honez gain, ekonomiaren aldetik bideragarriak izan behar dira eta norberaren interese- sek baino, herritar guztien onurak eta interese- sek lehentasuna izan behar dute. Parte hartzea errazteko aurrerapausu desberdinak eman dira jada. Argibide-liburuxka bete-

garria etxez, etxe banatu da, informazio karpak jarri dituzte bi egun desberdinetan, prozesua azaltzeko hitzaldi bat eskaini da eta herritarrek formulario bat dute eskuragarri webgunean. Proposamenak euskarri digitalean (USB memoria, SD txartela, CD, DVD etab-ean) aurke- ze daitezke baita udaletxearen aurrez aurreko bulegoetan ere. Gainera, eskaneatutako artxiboa beza- la atxikitu ahal dira partaidet-

za@berango.org posta elektroniko- ko helbidera bidaliz. Udal web orrialdean eskuragarri dagoen for- mularioa digitala ere bete daiteke.

Planteatutako iradokizunek uda- leriaren lurralde-oreka bermatu behar dute eta ez dira onartuko legez kontrako, difamaziozko zein diskriminaziozko edukia dutenak ezta gastu publikoaren arloan udal- eskumene-koa den edozein jardue- ra esparruari lotuta ez daudenak.

MOREAGA PARKEKO ORNAMENTAZIO-ITURRIA MARTXAN JARRIKO DA

Skate pista berriz diseinatzen eta berritzen dute eta hainbat oinezkoentzako pasabide hobetzen dituzte

Berangoko Udalak hobetze-lan desberdinak burutu ditu eta hauen artean Moreagako parkean, Icaza Jauregiaren aurrealdean kokatuta dagoen ornamentazio-iturria martxan jartzea nabarmentzen da. Lanak esleituta daude jada eta 32.000 euroko kostua izango dute. Iturria bere interes arkitektoniko- gatik babestua bezala agertzen da katalogoan eta lanak berritzeko, martxan ipintzeko eta balioan jart- zeko burutuko dira. Iturriak argit- ze-sistema berria izango du.

Honez gain, Lantzarteko auzoan, Simon de Otxandategi kalean eta Udal Kirolgunean oinezkoentzako zazpi pasabide jarri dituzte. Haue- tako hiru errepedearen maldaren gainetik zentimetro batzuk altxat- zen dira eta beraien helburua tra-

fikoa geldotzea da, besteak beste. Honek espaloiak igotzera eta iris- garritasuna hobetzera behartu du. Lanen aurrekontua 25.000 eurokoa da.

Beste 15.000 euro kostatuko da skate pista berriz diseinatzea eta berritzea. Proiektuak oso gutxi era- biltzen ziren maldak kentzea aurreikusten du, skate-a praktikat- zen duten pertsonentzako erakar- garriagoak diren elementuak jarritz. Bestalde, kartelak kokatzen diren informazio-taulak berritu dituzte. Burututako aldaketa hau informa- zio kartel berriak jartzeko apro- betxatu egin da, Burdin Hesiaren eraikuntzari, Gerra Zibilari eta Munarrikolandako ibilbideari buruzko informazioa eskainiz.

Duela gutxi burututako lanei



esker markesina berria jarri dute Simon de Otxandategi kalean, 6.000 euroko aurrekontuarekin, eta fut- bol zelaia ixteko sare zurruna koka-

tu dute, segurtasuna areagotzeko, 9.000 euroren truke. Moreaga par- kearen estalduraren azpian kulun- kak lau izan arte gehiagotu dira eta

kautxuzko lurra jarri da. Instalazio hauen gehitzeak 5.000 euroko aurrekontua izan du eta gurasoen eskaerei erantzuteko egin da.

UMEEN BIZIKLETA FESTA

Umeen Bizikleta Festak bere erakargarritasuna agerian utzi zuen, urtero familia ugari hurbiltzen diren jaia bihurtuz. 2.000 pertsona baino gehiagok eguraldi txarrari aurre egin zioten pasadan edizio honetan bizikletaz ibilbidea egiteko eta Moreagako parkean antolatutako aktibitate erakargarriekin gozatzeko, batez ere haurrei zuzendu izan zirenak. Azkenean eguraldiak lagundu egin zuen Uribe Kosta osoko ehunka familia erakarritik. Umeen Bizikleta Festa Erandiotik irteten da eta Berango Txirrindulari Elkarteak antolatzen du, giza eta medio baliabide itzela eskatzen dituelarik.

La Umeen Bizikleta Festa demostró que tiene un gran atractivo y que se ha convertido en una fiesta a la que acuden cada año numerosas familias. Más de 2.000 personas desafiaron a la desapacible meteorología esta pasada edición para disfrutar de un paseo en bici y de unas atractivas actividades en el parque de Moreaga, principalmente dirigidas a niñas y niños. Al final el tiempo acompañó una jornada, con salida en Erandio, que atrae a cientos de familias de toda Uribe Kosta. La Umeen Bizikleta Festa, que organiza Berango Txirrindulari Elkarte, requiere un enorme despliegue humano y de medios cada edición.



FAMILIA BATEN ZAIN JARRAITZEN DUTE

Amatza Auzoa, 5 lurreta 48215 (Goiuriko bidea). Bizkaia.
Zentroko ordutegia: astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00; 16:00-19:00;
Zapatuak: 10:00-14:00

Ba al dakizu, gaur egun, Berangoko herrian bertan batu diren 5 txakur daudela txakurtegian, adopzioaren zain? Interesaturik egonez gero, ikustera joan zaitezke, **ZAUNK**-era



Izena: **Saiko**
Arraza: **Setter**
Sexua: **Arra**
Adina: **2 urte**
Ezaugarriak:
Lagunkoia eta aktiboa



Izena: **Lolo**
Arraza: **Mestizo**
Sexua: **Arra, zikiratua**
Adina: **2 urte**
Tamaño: **Txikia**
Ezaugarriak: **Lagunkoia**



Izena: **Ron**
Arraza: **Mestizo**
Sexua: **Arra**
Adina: **2,5 urte**
Ezaugarriak:
Lagunkoia eta maitekorra



Izena: **Tak**
Arraza: **Setter**
Sexua: **Arra**
Adina: **3 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia, baina aktibitatea behar du**



Izena: **Spike**
Arraza: **Spaniel Bretón**
Sexua: **Arra**
Adina: **3 urte**
Ezaugarriak: **Lagunkoia, beste txakur eta pertsonekin**

SIGUEN ESPERANDO UNA FAMILIA

Barrio de Amatza, 5 lurreta (Carretera Goiuria). Bizkaia
Lunes a viernes: 10.00-14.00 ; 16.00-19.00 Sábados: 10.00-14.00

¿Sabías que existen 5 perros que se han recogido en el municipio de Berango y que hoy en día están en una perrera a la espera de que sean adoptados?
Si estás interesad@ en adoptar alguno de estos perros, puedes realizar una visita y conocerlos en **ZAUNK**



Nombre: **Saiko**
Raza: **Setter**
Sexo: **Macho**
Edad: **2 años**
Características:
Sociable y activo



Nombre: **Lolo**
Raza: **Mestizo**
Sexo: **Macho, castrado**
Edad: **2 años**
Tamaño: **Pequeño**
Características: **Sociable**



Nombre: **Ron**
Raza: **Mestizo**
Sexo: **Macho**
Edad: **2,5 años**
Características:
Sociable y cariñoso



Nombre: **Tak**
Raza: **Setter**
Sexo: **Macho**
Edad: **3 años**
Características: **Sociable pero necesita actividad**



Nombre: **Spike**
Raza: **Spaniel Bretón**
Sexo: **Macho**
Edad: **3 años**
Características: **Sociable con perros y personas**